

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa baten produktu bat aurrera eramateko bazkideak eta hornitzaileak beharko ditugu.

Gure kasuan, hornitzaile egokiak izatea ezinbestekoa izango da, gure produktu guztia ekoiztuko dutelako: silikona eta dispositiboa (txip-a barne).

ZANN pultserari dagokionez, bost bazkide izango gara: Nora Acosta, Andrea Arrondo, Zahira Luque, Naroa Ocariz eta Amaia Zufiaur.

Amaiak, Noraren laguntzarekin, diseinua prestatuko du: kolorea, silikona eroso, etab. Produktua merkaturatuko du ere bai. Honetarako, merkatu egoera aztertuko du.

Zahira eta Naroa administratzaile lanetan arituko dira, hau da, bazkide bakoitzaren funtzioak zuzenduko dituzte, batera helburu bat lortzeko, pultsera sortzea eta saltzea.

Andrea eta Nora teknologiarekin ondo moldatzen direnez gure webgunea sortuko eta kudeatuko dute, produktua hasiera batean internet bidez salduko dugulako. Bestalde, aplikazioaren sortzeaz ere arduratuko dira. Honetarako baliabide nahikoak ez dituztenez, beste enpresa batekin lan egingo dute.

Bi osagai dituen gure pultserak, bi hornitzaile izango ditugu: batek, dispositibo teknologikoa garatuko du eta besteak, Amaiak egindako pultsera diseinua silikonaz egingo du. Dispositiboa garatzen duenak, txip-a ekoizteko gai ere izan beharko da.

Hornitzaileen kudeaketa egokia ezinbestekoa izango da, gure produktu guztia ekoiztuko dutelako. Gure enpresan erabaki dugu bazkide bakoitzak rol bat izatea, errazagoa izango delako proiektu hau aurrera eramateko.